

EZKIO-ITSASO / Herriko liburutegi berria arte lanez apaintzeko aukera egongo da Pazko Astean

DV. Ezkio-Itsasoko liburutegia eta Udalaren eskutik, haur eta gaztetxoentzako lantegiak antolatu dira Pazko Asterako, hauek herriko liburutegi berria apaintzeko zuzenduta egongo direlarik.

Lantegi honen helburuak desberdinak dira. Alde batetik, gaztetxoek ondo pasatzeko antolatu dituzte, eta bestetik, herriko liburutegi berria eta inguruak arte-lanez apaintzeko.

Honetarako Txatxilipurdi elkarteko bi hezitzaile egongo dira egun horietan Ezkio-Itsason, biak Arte Ederrak ikasitakoak, eta hauek spray, margo, errotulagailu, collage eta bestelakoak erabiliz liburutegia apainduko dute gaztetxoekin batera.

Ekintza honetan parte hartzeko alde zuzenetik izena eman behar da udaletxean 943 72 13 03 telefono zenbakian; azken eguna bihar izango da. Tailerrak hiru egunetan zehar aurrera eramango dira: apirilak 14, 16 eta 17an, arratsaldeko 15:00etatik 18:00ak bitartean. Beraz, liburutegia apaindu nahi duten guztiek bihar bertan deitu beharko dute.

Hasteko pareta bi kolorez margotuko da, eta ondoren, honen gainean marrazkiak eta bestelakoak egingo dituzte. Gaia sorpresa bat da, baina ziur guztia amaitzerakoan liburutegiak itxura ederra izango duela. Animatu!